

IRAGARKIA

95. ALDIZKARIA - 2022ko maiatzaren 17a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

UHARTE ARAKIL

2022rako lan publikoaren eskaintza

Honako honen bidez aditzera ematen da ezen, 49/2022 Alkate Ebazpen bidez, 2022ko maiatzaren 11n harturiko erabaki baten bidez, onetsi dela Uharte Arakilgo Udalaren 2022. urterako lan publikoaren eskaintza, honela:

Lehena.—Onestea Uharte Arakilgo Udalaren 2022rako lan publikoaren eskaintza, honako lanpostu hau barne hartuta, eta kontuan hartuta abenduaren 28ko 20/2021 Legeak xedatutakoa (Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko legea):

1.—Izaera: funtzionarioa. Lanpostu kopurua: bat (1). Lanpostua: zerbitzu anitzak. D maila. Sarbidea: lehiaketa (20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarria). Hizkuntza-eskakizuna: euskara jakitea nahitaezkoa, B1 maila. Betetzeko aurreikuspena: 2023-2024. Txanda irekia.

Bigarrena.—Lan publikoaren eskaintza argitaratzea Udal honen egoitza elektronikoan, iragarki- taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, orok jakin dezan eta interesdunek egokitzen jotzen dituzten errekurtsioak jar ditzaten, kasua bada.

Hirugarrena.—Erabaki honen berri ematea lan publikoaren eskaintzako lanpostuetan egun diharduten lan-kontratudun edo administrazio-kontratudun langileari, behar diren ondorioetarako.

Laugarrena.—Horren berri Udalbatzari ematea egiten duen hurrengo ohiko bilkuran.

Bostgarrena.—Erabaki honen aurka, errekurtsio hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

a) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta

biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Uharte Arakilen, 2022ko maiatzaren 11n.—Alkatea, Jose Domingo Huarte Baleztena.

Iragarkiaren kodea: L2206916